



Sagardoaren museoa, nonbait

■ *Desagertzen ari den materiala jaso eta erakusteko asmotan dabilta hainbat lekutan*

SAGARDOAREN museoa bat baino gehiagoren ahotan dabil azken urteotan. Azkenaldion izandako aldaketak direla-eta materiala desagertzen ari dela ikusirik, hori jaso eta sagardoaren museoa egiteko gogo nabaria da hainbaten artean.

Usurbilgo Sagardoaren Lagunak Elkartekoek museoaren beharra aspaldi ikusi zuten; orduan deitu zituzten Hernani, Urnieta, Astigarraga eta Usurbilgo kultur elkarteak eta udalak. Elkarteko kide Jakoba Errekondoren hitzetan, «urtebetez bilerak izan genituen Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundikoek, sagardogile elkarteak eta kultur elkarteak, eta azkenean bere horretan geratu zen, ez zen ezer atera».

Usurbilen Sagardo Egunean egin ohi dituzten erakusketetako panelak gorde eta azken hamabost urteetan dolareek izandako aldaketak jasotzen ari dira: zein aldatu dituzten, non

diren dolare gotikoak eta non barrokoak eta abar.

Tolare Hernaniko Sagardo Naturalaren Kofradiakoak ere materiala biltzen ari dira: Hernaniko dolareen inbentarioa ari dira egiten, eta jendeak ematen dizkien dolare, argazki zahar, garai bateko botilak eta bestelako materialak jasotzen ari dira. Hernaniko Udalak biltzen zuten guztia jartzeko lekua agindu eizien, baina gehiegi atzeratzen ari da kofradiako lehendakari Imanol Larretxearen aburuz.

Astigarragan ere Sagardo Etxea -eta horren barne museo- egiteko asmoz hainbat bilera izan dituzte Udalekoek eta sagardogileek, baina, besteetan bezala, ez da ezer egin.

Sagardoa egiten duten beste hainbat herrialdetan, Asturiasen, Eskozian, Normandian eta beste, badira dagoeneko sagardoaren inguruko museoak. Euskal Herrian, oraingoz, asmoa eta gogo badago. Eta etorkizun hurbilean, hor nonbait izango da museoa ere.